



## ELURTEI BURUZKO BANDOA

**Berriro ere elur ekaitza etorri eta Alkateak, Elurte garaietarako plana aktibatzeaz gain, ontzat eman du bando hau ematea:**

*Zirkulazioko bide nagusietan elurra ez pilatzea eta trafikoa ibiltzeko moduan uztea da Udal Zerbitzuen helburu nagusia, eta horretarako, erabilgarri ditugun baliabideak erabiliko ditugu.*

*Programa espezifiko bat ezarri du Udalak, urgentzia eta osasun zentroetara, industrialdeetara, ikastetxeetara, zentro ofizialeetara eta beste zerbitzu batzuetara iristeko bideak libre lagatzeko. Azken batean, lortu nahi dugu egunerokoak betiko funtzionamendua izatea, abal dela elurrak eta izotzak eragiten dituen ustekabeak-eta ez izateko.*

*Udalaren abalegin horri batu behar diogu herritarren kolaborazioa. Gogora ekarri behar dizuegu denoi, ausart lan eginez eta herritarren kolaboraziorakin bakarrik gutxituko ditugula elurraren ondorio negatiboak, zerbitzu publikoak eta pribatuak gelditu ez daitezzen eta martxan izan ditzagun.*

*Horretarako, gomendio hauek egiten dizkizuet:*

- *Abal dela ez erabili ibilgailu pribaturik, eta autoan zoztela handitu segurtasun distantzia. Gogora ekarri ikusi ere askoz gutxiago ikusiko duzuela. Frenatu egin behar baduzu, ez egin bat-batean.*
- *Abalegindu garajeetan gordetzen kalean aparkatu obi dituzuen ibilgailuak.*
- *Oinezkoak espaloitik ibiliko dira beti, eta kontu handia izan kaleak gurutzatzean.*
- *Pertsona nagusiek, ezinduek edo mugikortasun mugatua dutenek saibestu beharko dute kalera ateratzea beharrezkoa ez bada. Ateratzen badira, kontu eta arreta handiarekin egin behako dute.*
- *Auzokoen eta lokal edo dendetako jabeen komunitate bakoitzak arduratuko da bere fatxadak hartzen duen espaloi zatia garbitzen.*
- *Etxejabeen komunitatea arduratuko da ibilgailu partikularren garajeetara iristeko bideak garbitzeaz.*
- *Ibia edo ibilgailuentzako sarbidea daukaten enpresetako edo beste eraikin batzuetako titularrak arduratuko dira sarbide horiek garbitzeaz, bai eta haien jabetza barrualdean dauden maniobra edo aparkaleku eremuak garbitzeaz ere.*
- *Lan hauek errazteko, herritarrek hartu abal izango dituzte gatz kopuru txikiak Ur eta Obra Zerbitzuen udal biltegian (Biderkutzeta kalea 2, ASAM enpresaren eraikin obia).*
- *Saiatu ez ateratzen zaborra kalera –bereziki kartoiak- bere bilketa normalizatua izan arte.*
- *Erabili informazio telefono hauek 943 25 20 00 (BAZ) – 943 5 20 10 (Udaltzaingoa).*
- *Hau guztia adierazten dizuet, guztiok jakin eta bete dezaguen.*

Arrasate, 2013ko otsailaren 12a  
Alkatea

